

E-CONST: ingurumena eta eraikuntzaren arteko sinergiak ezagutzen

Ingurumen arloko enpresen eta eraikuntzara dedikatzen direnen arteko elkarlana ezinbestekoa da naturarekiko errespetua duten herri eta hiriak izan ditzagun. DORLAZKAN, paradigma aldaketa ekonomia zirkularrean oinarritutako proiektu berritzaileen eta lan-ildo berrien bidez lortu daitekeela uste dugu.



Jardunaldiaren aurkezpena

DORLAZKAtik Donostiako Tabakalera eraikinerira joan ginen pasa den uztailaren 2an, **Aclima**, Euskadiko Ingurumen Industrien Klusterrak eta **Eraikune**, Euskadiko Eraikuntzaren Klusterrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, antolatutako **E-CONST** proiektuaren inguruko jardunaldira. **Ekimen honen helburu nagusia ingurumenaren eta eraikuntzaren sektoreak batzea da, ekonomia zirkularraren ikuspegitik aliantzak sortu eta lehiakortasuna, jasangarritasuna eta aukera berriak sustatu ahal izateko.** DORLAZKAtik, ezinbestekoa iruditu zaigu bertan jorratutakoaz idaztea eta, jardunaldiak sortu zigun interesa eta bertan ikusitako ideia aberastasuna kontutan hartuta, hausnarketa sakon baten ondoren, gure pentsamenduak ere azaleratzea.

Zentzu horretan, Olga Martinek, Acimako zuzendariak, eta Jon Andoleagak, Eraikuneko zuzendariak egindako aurkezpenean, garbi geratu zen **eraikuntza eta ingurumena batzeak eman ditzaken aukerak ezin hobek izan daitezkeela; izan ere, ekonomia zirkularraren garapenerako sektore estrategikoak dira; lehenengoak eragiten dituen ingurumen-inpaktuengatik (lehengaien ustiaketa,**

energiaren kontsumoa edo hondakinen sorrera, besteak beste) eta bigarrenak, eman ditzaken lehiakortasun eta hazkuntza baliabideengatik. Kontutan hartzekoak dira, baita ere, aipatu zituzten datu batzuk:



Eraikuntzako **sektorean 18.945 enpresa** daude Euskadin, eta 59.972 lanpostu sortzen dituzte.

EAEko ingurumen-sektorea Euskadiko **BPGren % 5** da, 2020 urtean 2.100M euro fakturatu zituen.



Gipuzkoan **eraikuntzen batz besteko adina 46,9 urtekoa** da eta 348.432 etxebizitzetatik %67k 40 urte baina gehiago ditu.



Ingurumen-sektorea, funtsezko-sektorea izan da Covid19-ak sortutako pandemia-garaian.




Euskadin egiten diren **obren %79,3 bizitegi-erabilerrako** izaten dira.

Ingurumen-sektoreak, **gainontzeko sektoreen bidelagun** izan behar du ingurumena ardatz nagusi duten Europako politikei jarraitu eta **trantsizio ekologikoari aurre** egiteko.



Edozein kasutan, ingurumena eta eraikuntzaren hibridaziotik hainbat elkargune sor daitezke; beti ere, ekonomia zirkularrerako bidea proiektu berriztatzaileetan eta lan-ildo berrietan oinarriturik egiten bada. Horrela, eraikinen **bizi zikloa osatzen duten prozesuetan, eraikuntzaren planifikaziotik hasi eta eraisketaraino, ingurumen arloko balio-kateen eragina ikus daiteke** (hondakinen kudeaketa, lurzoru kutsatuak, uraren ziklo integrala, airearen kalitatea, ekosistemak eta ekoizpen eraginkorra eta ekodiseinua).



Eraikinaren bizi-zikloa (Jatorria: Aclima, Eraikune eta DFG):


- 01 -Diseinua eta plangintza*
- 02-Produktuen eta osagaien fabrikazioa*
- 03-Obra berria eta birgaitzea*
- 04-Mantentzea eta berritzea*
- 05-Biziaren amaiera*

Eraikinetan ez ezik, hirigintzan ere kontutan hartu beharreko eraldaketa da, **modu integralean ulertu beharreko paradigma aldaketa**, ingurunearekin benetan arduratsuak diren hiri eta herriak izan ditzagun.

Paradigma aldaketa lortzeko, ordea, ezinbestekoak dira berrikuntza proiektuak, lehengai naturalen ustiaketa gutxiagotu eta prozesu ekoefizienteagoak dituztenak, kutsadura arazoei modu integralean aurre egiten dietenak, arlo hauetan lan egin behar duten profesionalen formakuntza espezializatua ematen duten proiektuak, etab. Gainera, berrikuntza proiektuak egiteaz gain, **ezinbestekoa da, baita ere, proiektu horien dibulgazioaren bidez ezagutzera ematea**.

Horregatik, jardunaldian aurkeztu ziren proiektu berritzaileak oso interesgarriak iruditu zitzaizkigun, eta pare bat komentatzearren, Azkoitiko Iragaz enpresak aurkeztutako **BIONA teknologia**, lurzoruen deskontaminaziorako bioerremediazioa eta nanoteknologia erabiltzen duena, edo HEIDELBERG CEMENT enpresaren **H-ECO hormigoia**, agregakinaren zati bat edo osoa bigarren mailako iturrietatik datozen material birziklatuekin ordezkaturik.

Jardunaldia amaitzeko, workshop batean elkartu ginen mota eta jatorri ezberdinetako enpresak, arkitektura, eraikuntza, hondakinen kudeaketa, ikerketa mundua, formakuntza eta heziketa mundua, ingurumen teknikariak... **Denok ikuspegi ezberdinekoak, baina hainbat elkargune izan genitzakeenak** ekonomia zirkularra helburu izanik ingurumenaren eta eraikuntzaren bideak elkar gurutzatzeko eta proiektu berriak sortzeko.



Workshopean parte hartzen (jatorria: Diario Vasco)

Amaitzeko, eta ondorio modura, esan dezakegu **lan asko dagoela egiteko**; batez ere, baliabide gutxien dituzten enpresei ekonomia zirkularraren onurak erakusteko orduan. Izan ere, lehenago aipatutako datuak kontutan hartuz gero, eraikuntzara dedikatzen diren 18.945 enpresetan 59.972 langile badaude, ondorioz, enpresa bakoitzeko, bataz beste, 3.16 langile egongo dira. Gainera, eraikuntzen adina hain altua bada eta horien gehiengoa bizitegi-erabilerakoak badira, bertan egiten diren obrak, etxebizitzak eraberritzeko obra txikiak izango dira, enpresa txikiek egindako obrak. Baina, enpresa txiki horiek ulertzen al dute ekonomia zirkularra zer den? Eta jasangarritasuna? Ba al dakite, ingurumenaren alde zenbat egin dezaketen? Nola iritsi gaitezke beratiengana bide horretan laguntzeko?

INFORMAZIO GEHIAGO:

- Aklima: <https://aclima.eus/>
- Eraikune: <http://www.eraikune.com/>